

### 3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

*Negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da.*

*Enpresa batek aliantzak sor ditzake beste enpresa batzuekin hainbat arrazoi direla medio: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko, hain zuzen ere.*

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure enpresaren garapenean beharko ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak, gure produktuen ekoizpena bermatzeko beharrezkoak diren lehengaiak zuzkitzen gaituzten enpresak izango dira.

- **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Gure enpresaren ekoizpena bermatzen dutelako eta lehengaien kalitatea, produkzioaren kalitatean ere ondorioak izango ditu.

